

IRAGARKIA

265. ALDIZKARIA - 2023ko abenduaren 26a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK OLAZTI

Lurraren kontribuzioaren zerga-tasa 2024rako

Olaztiko Udalak, 2023ko uztailaren 18an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen 2023rako lurraren kontribuzioaren zerga-tasa, eta hori 2023ko 174. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 22an.

Bertan akats bat dago, zerga-tasa aplikatzeko urtean 2023 baitio eta 2024 esan behar baitu. Hortaz, akats zuzenketa argitaratu zen 2023ko 206. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urriaren 3koan.

Jendaurrean egoteko aldia, hogeita hamar egunekoa, iragan da inork aurkeztu gabe erreklamazio, kexa edo oharrik; hartara, behin betikoa bilakatu da hasierako onespeneren erabakia.

Inguruabar hori ematen da argitara, behin betiko testuarekin batera, behar diren ondorio juridikoak izan ditzan:

%0,25 da 2024. urterako onetsitako lurraren kontribuzioaren zerga-tasa.

Argitara ematen da, aipatutako legezko aginduak betetzeko, eta ohartarazten da behin betiko onspen hau aurkara daitekeela honako bide hauetako bat erabiliz:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzendua zuzenean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Olaztin, 2023ko azaroaren 17an.–Alkatea, Joseba Vizuete Ascargorta.

Iragarkiaren kodea: L2316375